

DIRU-SARRERAK

Gure bezeroei eskaintzen dizkiegun produktuak teknologien salmentetatik datoz. Horregatik, bezero batek erloju bat erosi nahi izatean, denda fisikoak edo web-orrialdera eramango dio, orduan diru-sarrera gehiena denda horretara joango da.

Gure bezeroek hainbat modutan ordaindu ahal izango dute:

- Bizum.
- Kreditu-txartela.
- Eskudirua.
- Paypal.
- Banku-transferentziak.

Diseinatu dugun produktua pantailarik gabeko erloju digital bat da, hau da, eskumuturrekoa, hainbat koloretakoa, eta sentsore bat du, zure azterna hautematean telefono mugikor baten funtzioa duen holograma bat proiektatzen duena.

Gaur egungo planetaren egoera hartu dugu kontuan eraikitzeko, eta produktu birziklagarriak erabiltzea erabaki dugu. Produktu horien bidez, eguzki-plaka batzuk sortu ditugu erlojuaren barruan, bateria kargatzeko.

